

## **EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA ZENBAIT EUSKAL TOPONIMOREN ORTOGRAFIATZ**

Euskaltzaindiak, euskaraz hasierako *i-* eta hurrengo bokala bi silaba eginik ahoskatzen diren toponimoetan, bokal biak *-h-* baten bidez berezirik idaztea ontzat hartzen du, delako *h*-a etimologikoa ez izanik ere. Hala nola:

*Ihaben*, erdaraz *Yaben* ahoskatzen dena (Nafarroan).

*Ihabar*, erdaraz *Yabar* (Nafarroan).

*Ihurre*, erdaraz *Yurre* (Arabian eta Gipuzkoako Olaberrian).

*Ihorreta*, erdaraz *Yurreta* (Bizkaian).

Hala ere *Igantzi* (Nafarroan) eta *Igorre* (Bizkaian) lehen erabaki zen bezala uzten dira.

Donostian, 1988-garreneko Urtarrilaren 29-an.